

## **Jean Haritschelharri goratarre. Manuel Lekuona Saria 2004**

(Baigorri, 2005eko maiatzak 21)

---

2005eko maiatzaren 21ean Baigorriko plazan Euskaltzaindiko kide ugari, euskal kulturako ordezkariak, hainbat politikari, eta Eusko Ikaskuntzako ordezkariak bildu ziren, Jean Haritschelharren lankide eta lagunak, hari omenaldia egiteko, 2004ko Manuel Lekuona Saria emateko.



Javier Retegik saria ematen dio Jean Haritschelharri

Eusko Ikaskuntzak euskal kulturako pertsonalitateak goratzeko sortu zuen saria 1983 urtean. Jesus Atxa, Jorge Oteiza, Carlos Santamaria, José M<sup>a</sup> Jimeno Jurio eta Manuel Lekuonaren izenari Jean Haritschelharrena gehitu zitzaion horrela.

Haritschelhar euskal idazle eta hizkuntzalari baxenabartarra Baigorriin jaio zen 1923an. Tolosako Unibertsitatean eta Sorbonan ikasi eta Bordeleko Unibertsitatean gaztelania, euskara eta euskal literatura irakasle izan zen. Baigorriko alkate eta Baionako Euskal Museoko zuzendari izateaz gain, Eusko Jaurilaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kontseilari izendatu zuten 1982an. Etxahun olerkariari buruzko tesiarekin doktoratu zen. Hitzaldi anitz prestatu eta euskal aldizkari anitzetan parte hartu du. Euskaltzain osoa da 1962az geroztik, urte askoan euskaltzainburuorde izan ondoren, 2004ko Lekuona sariak, 1989an Aita Villasanteren lekukoa hartu zuen euskaltzainburu izateko, eta 2005ean kargua uztea erabaki zuen arte lan horretan aritu da.

### **BAIGORRIKO ALKATEAK ALKATE OHIARI**

Baigorriko Udaletxean bildu ziren Haritschelharren lagunak Manuel Lekuona saria banatzeko ekitaldian *“Baigorriko eta euskal kulturaren semea”* zioriontzeko. Jean-Baptiste Lambert, Baigorriko alkatea izan zen hitza hartu



Beñat Oihartzabal, Javier Retegi, Jean Baptiste Lambert (Baigorriko alkatea), Jean-Claude Larronde, eta Jean Haritschelhar

zuen lehenengoa. Baigorriko auzapezak Haritschelharrek 1971 eta 1980 bitarte omenduak herrian alkate gisa egindako lana goratu eta *“Baigorri aire berria”* eman ziola gogoratu. Izan ere Jean Haritschelharrek oportetara joaten zen familientzako auzo bat, errugbi zelaia, udal igerilekua, eta Herriarena trinketa egin zituen, *“guzti honi komunitateko bizitzarentzat beharrezko diren lan desberdinak gehitu behar zaizkio, esaterako errepideen berritzea, ur edan-garri eta elektrizitate hornidura”*, Collège Jean Pujo ikastetxea eraikitzen ere lagundu zuen.

Lambertek, gainera, Baigorriko alkate izan zenaren pilotarekiko zaletasuna gogoratu zuen *“Zaharrer Segi pilota elkarteko kide, 1943an Errecalde taldeko kide izanda Frantziako Errebote Txapelketa irabazi”* baitzuen. Haritschelhar 1968an Euskal Pilotaren Frantziako Federazioan sartu eta *Pilota* aldizkaria sortu zuen. Ondoren, Pilotarien Biltzarra elkarteko presidente ere aukeratu zuten.

Bukatzeko, sariagatik zoriondu nahi izan zuen Jean-Baptise Lambertek Haritschelhar euskal hizkuntzalari eta idazlea.

Jean-Claude Larronde Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako lehendakariak Haritschelharren tesiaren aurkezpena eta bere tesiaren hastapeneko oroitzapenak lotu zituen

## **HERRITAR XUMEEN KULTURA UNIBERTSITATERA**

Beñat Oyharçabal Euskaltzaindiko lehendakariordeak hartu zuen ondoren hitza Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia Euskaltzainburuak ezin izan baitzuen hitzordura agertu. Oyharçabalek *“plazer handiz”* egin zituen hitz hauek *“haren aldera aspaldi sortu zorren ordaintzeko, edo bederen aitortzeko”*.

Euskaltzaindiko lehendakariordeak sarituak euskara batua bideratzeko zein euskararen alde egindako lana azpimarratu, eta Piarres Charrittonek idatzitako Haritschelharren biografia liburuxkari erreferentzia egin zion, inork sehetasun gehiago nahi izatekotan bertara jotzeko.

Haritschelharrek herritarren artean euskal kultura zabaltzeko hartu zuen lana azpimarratu zuen, izan ere bere lanetan Etxahun, Otsobi edo Elizanbururen koplak herrikoiak aztertu zituen:

*“Zergatik alderdi hau nahi nukeen atxiki? Zeren erakustera ematen baitute Jean Haritschelharren lanen helburuetako bat izan dela luzaz euskaldun herritar xumeen artean bizi izan den euskarazko kultura hau unibertsitateko erakaskintza alkitara ekartzea, eta ezagut eta maitaraztea, mundu berrian euskarak ez baitzezakeen gerorik izan, herritarrek ez bazerkarkioten atxikimendu eta errespeturik euskarazko kultura horri”*.

## EUSKALTZAINDIA-EUSKO IKASKUNTZA BINOMIOA

Eusko Ikaskuntzako lehendakari den Xabier Retegik laugarren aldiz Ipar Euskal Herrian emandako Manuel Lekuona Saria Jean Haritschelharri ematea ohore handia dela azpimarratu zuen, eta 1983an saria sortu zenetik urte urte zerrenda aberasten joan dela adierazi zuen, “2004ko edizioaren irabazlearekin are gehiago ohoratzen da, Eusko Ikaskuntza bera ere ohoratzen den bezala”.

Retegik “euskaltzale erraldoi baten lan eskergea publikoki errekonozitzeko aukera bikaina” baliatu eta Eusko Ikaskuntza eta Haritschelharren arteko harreman bikaina azpimarratu zituen. Izan ere, Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntzatik sortu zela gogoratu zuen Retegik:

“Eusko Ikaskuntza 1918an jaio zen eta une hartantxe pentsatu zuten garaiko arduradunek, euskal hizkuntzari eskaini beharreko era guztietako babes zela eta, erakunde aproposa jaioaraztea (...). Eta Eusko Ikaskuntzan zeharo harro gaude, 1919an hartutako erabaki hartaz. Erabaki historikoa izan zen, zalantzarik gabe”.

Haritschelharrengan bi erakundeen arteko lankidetzaz aurrera eramateko prest zegoen pertsona aurkitu zuela gaineratu zuen:

“Jeanek Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza binomioaren aukeran sinetsi zuelako nire errekonozimenduzko testigantza aurkeztu behar diot, eskerroneko sentimenduarekin batera”.



Jean Haritschelhar bere familiarekin

Haritschelharren tamainako kultur ekarle gutxi aurki daitezkeela gaineratu, eta omendua zoriontzeaz gain eskerrak ere eman zizkion Eusko Ikaskuntzako lehendakariak.

## **MENDIBURUREN BRONTZEZKO ESKULTURA**

Lagunen hitzak entzun ondoren hunkituta hartu zuen Jean Haritschelharrek Remigio Mendiburuk egindako brontzezko eskultura, Baigorriko Udaletxean bildutakoen txalo artean *“hamabost urtez etxe honetan –Udaletxeagatik– herriarentzat lanean aritu ondoren”*. Omenaldira gerturatutako guztiei eskerrak eman, eta bereziki iparraldeko Eusko Ikaskuntza eskertu zituen.

Manuel Lekuona Saria berarentzat berezia zela ere adierazi zuen Haritschelharrek, Manuel Lekuona bera eta honen familiarekin lotura handia izan baitzuen. Bereziki preziatzen duen saria dela gaineratu zuen.

Omenaldirako prestatutako bideo baten bidez Xabier Kintana, Aurelia Arkotxa eta Jean Fagoagak ere Haritschelharrek egindako lana, eta bere ondoan bizitakoak goratu zituzten. Baina festa ez zen horretan bukatu, Lakaren bertsoen ondoren bazkarira bildu eta lagunartean omenaldiak aurrea egin baitzuen kantu eta giro bikainak lagunduta.

*Aitziber Salinas Elozegi*